

ERRI IZKUNTZEN LORATEGIA

Madrid aldetik etorri izan zaigun aizea, beti beste eskualdetako asmo ta gauzen kontrakoa izan da agiaz. Baiña noizean bain eta gaurko egunetan au gelago nabaitzen degu, Madrill'go egunkariak beste aize ongarri bat biltzen ditute, uste gutxiarekin degunear.

Onela, pozik irakurri degu ABC'eri Alfonso de la Serna'k idatzit duan lan bat, LENGUA VERNACULA izenburuduna. Bera erdalduna da ta bere izkuntza, gaztelera oso artua du. Arro aitatzin ditu ainhait lurralde gaztelera itzigitzen dutenak eta poz du ainhait lurraldetan gaztelera zabaldua ikustea.

Orain arte, ezta arritzekoa idazlan au; baiña emendik aurrera diotna, benetan aitzaketa da eskertzekoa da Espainia barruan beste izkuntzak itzigitzen ditugunontzako. Katalanak eta euskaldunak aitzatzen dituzate ere idazle onek bere lanean, eta erdaldunentzat oso egoki itzigitzen ligu, anek besteon izkuntzak aintzat ar dituzten, eta orain arteko asarreak biderik sortu ezteidin gure arteko mintzako bide dirala.

Oso buruz esaten du erdaldun onek, here erdal-arrokeriak ez duala jultzaitzen, besteren izkuntzak, ain antzianatik gure artean bizi diran izkuntza oiek aspiratzea ta apaltzea. Gure berdin-ezak eztiola bat ere aliterik egiten guzian batasunari. Alkar onartuzak bizi bear omen degu.

Izan ere, izkuntza erri bakoitzaren anima-ispillu bizizena da. Abertak ez duten eta gizonok bakarrik degun itzigitzeko doal onek, gizaidebetako zaera ta erri bakoitzaren espiritu-mulña berekin ditu ta inork ezta erri-rik here errialdean albokoaren izkuntza itzigitzen ez dalako.

Elizak, ain zuzen, —dlo idazle onek—, ongi ikasi du egi au, ta here iturji oioitzak, erri bakoitzaren izkuntzetara aldatu-arazi ditu. Zerbitz kusi du Elizak ontan. Eta ala da: norbere izkuntza barru-barruan errotu ta sustraitu danguko guzok. Alperrik ikasiko dituzun besteren izkuntzak. Anek azalean geldituko zaitezkin. Anak erakutsi dzuna ez ala.

Amagandik jasozten degun izkuntza orrek, zure bizitza berebiko antepene eta bilgarrit indartzen du. Ta ori, ez beste Gobernupeko izkuntzein, ez Gobernu bateko bi errialdeetako izkuntzein ez zalzu geratzen. Naiz ta Gobernu bereko lurrak izan, aitzin bi izkuntza itzigitzen na-dira, bakoitzak bere izkuntzan arkituko du, besterenean arkitzen ez tuan gozotasuna.

Benetan piztekoa da Madrill' aldean onelako idazleak sortzea. Izan ere, gure arteko izkuntza guziki berdin mailatzekoak eta berdin begiatzekoak ditugu. Guziok, alkarri anaralabea gerala sinisteko, gure artean ez du goraberarik izan bear gure izkuntzei buruz.

Gaztelera, Katalanera, galiziera, bakoitza bere arpezig eta animaz janzia artu degu txikitatik. Gure etxe ta kaletan, txikitatik entzun degun zkeran orren arnasa barru-barruraino sartu zaigu, Guziok berdin jaso eren ditugu Estaduaren kargak, zergak eta abar. Guziok ere, era beean jaso bear ditugu Gobernupe berean, eskubide berdiniak.

Zoritzarrez, gizaide askotako lana izan da alde guzietan, Gobernu bakoitzak izkuntza bat bakarrik aintzat artzea ta besteak zokoratzea; ta onela oiti diran errialdeak ezin dira egun batean aldatu ta guzian dkerak berdin errespetatzen jarri. Au luzaroko lana da, Baiña mailtasu-zez eta pazientzi-zez egiteko lana.

Arrokeriak eta asarre bideak ezta biderik erretzeko gal auctan. Alonso de la Serna'k jator dionez: "Egi onen aurrean espaliarrok geron uruari galdetu bearrean gauda, ta oituko ote geran ala ez, Espainia'n egun izkuntza auen desberdintasuna ta ugaritasuna ezagutu ta aitoren. Gure aurrin beste izkuntzetan itzigitzen dutenean, asarretu gabe a oillartu gabe. Eta izkuntza bakoitzari bere lekuan eta neurrian bear ituan laguntzak, irakaskintza ta beste salletan esketiniak."

Ez alda ederki esana? Baiña ontara iristeko bide luzea degu orain. ik, erampen aundia bear degu, asarretziki gabe, gozo itzeginiak eta ure arrazoibide jatorrak pakcan zabalduaz gure inguruan.

Ori zabalago egin dezakete idazleak eguneroko papeletan; baiña gutako bakoitzak ere, bere inguruan izilik bete dezake eginbear au.

Eta inoiz iristen ba-degu zorion au, orduantze guzok alkarrengana o anatasuna bete betean sentituko degu. Eta gure arteko pakerako aso lagunduko digu egi onek: Alde guzietan izkuntza guziki eskubide berriak eta laguntza berdiniak arkitu bear dituzte. Au da gizaetasunak ristautasunak eskatzen digun aurreneko eginbearra.

EUSKALDUN ZERTAKO?

Juan SAN MARTIN

Jose: Aspalditik nintzan zurekin zorrotan. Zure zuzenbidea ez dakit zelan aldenitu jatan. Horregaitik ezin izan nizan erantzun. Zure berriak badakizu beti asko posten nauela. Noizbait lasiago idazteko aukera izango deda-koan, horaingoz, Z. ARGIA'ren 205 zenbakian egiten zenuen galderari ohar-ko batzuk babarrik egin nahi dizkio.

Euskaldun zertako? galdetzen duzu. Neuk bai ahal dakit zertako? Baiña naiz. Ta hau errealidadea bat da.

Zure galdera ez da horren ximplea. Sakona iduritzen zait, Nerone buruari ere mailz g'adetu bai diot euskaldun zertako jaino nintzen. Zergaitik gizon eta zergaitik mundu hontan sorthua naizen galdetzen dedan bezala. Azken hauek, gizonak bere buruz erantzun ezin dakoak badira ere, lenhenbizikoa ere nekeza zaio bere buruz erabakitzea. Aukeraterik izan balu, behar bada Noruega aldean edo, sortzea nahilagoke nuen, hemen Espal-ia ta Prantziaren arteko muga aspergarri honetan baiño. Baiña, nerone esku ez egoyane eta hemen sorthu nintzanean, bertakoa natzal-izu ta bertakoa natzalamez, hara-pez eta ispirituz, beharrezko zait bertan bizi beharra beharrezko sortherriaren interskin arduratzea, bera nere haragia delako, ta ni haragi horren zati bat. Nere osasu-nea, nere herkiekekin batean, bere osasunarekin batean dagoalako.

Nere sortherria bera ere munduan herri haragi zati bat besterik ez da. Bai. Ez dizut ezetziki esango. Baiña bakoitzak gauden lekutik osatu behar dugu mundua. Beranduko eskultzalea naiz, ta aintzi-riako munduzalea. Europaren osar-riak herrixikien bulzadatik ez badatoz, nagusiak alkar mendera-zenen bukatuko dute. Zergaitik ori? Zergaitik istoria guzian handiak al-klar artze hori nekezagoa?

Europa zaharrak ez du osuzorik herri txikiak errespetatzeko. Tala ere, euskaldun zertako? Eta, zertako erdeldun? Zertako espaiifik, zertako frantses, edo zertako in-gles? Gizonaren neurritik begira-tua ere guzia baiela. Testamentu zaharrak dion bezala: "Vanitas vanitatum et omnia vanitas" (Ecles. 1,2).

Horrela asten du Unamuno be-arak ere "Plenitud de plenitudes y todo plenitud! saioa. Gaiñera, zu ere, ni bezala, oso Unamuno zalea zerareze lan berean arkitu zezake, hau: "Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía" (Obras completas, T. III, p. 765). Eta berak euskertari punik arkitu ez basion, ez zan izan euskertaren erria, bere euskere-liko ez jakintasunarena balzik. Ta,

halaz ere, zuk eta nik ondo dakigu beren buruak eusketzalezat dituz-ten askok baiño euskera gelago ekiela.

Neuk ere behar bezelako gunik ez nion arkitu gaztelarari. Gaztele-za ondo menderatu nahirik eman nituen alperrikako orduak irakatsi zidaten ene arbaso hizkuntzan ue-ia gun hori, arima hori. Ta kontu-ratu bezin askar jo nuen euskera-za.

Nere'ezpainak euskeraz ikasi zu-ten irri ta parre egiten; nere be-riak euskeraz ikasi zuten negar egit-ten (geroztik, maiz, euskeragaitik negar eginbeharrean arkitu badira ere). Beraz, zergaitik ez euskaldun, besterikoa gunik ez ba dut? Unamunok zifunenez: "La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu" (Obras completas, T. III, p. 1081). Bion arteko diferentzia bakarra da, berak gaz-telearen arkitu zuela gura eta nik euskertan. Alde hortatik begiratu izandut Unamuno'ren heburua, ta horregaitik inoiz ez dut txarrera hartu. La cuestión del vascoenue- zion guztia. Aski zalzu jakitzea eus-keitzale baiño lenago nintzela Un-amuno-zale, ta hontan ere ikasbide hoberean izan ditudala. Ta, gau-za oiek agertzeko Unamuno oinfi-ri hartzen badut, bi gauza gaitik da: bat, arestian esan dudan beza-za, noizbait zeu ere Unamuno-zale izan zerealako; ta, bi, zuk horain egiten duzun galdea, "Zertako eus-kaidun?" berak zuk baiño lehen esin zuelako ta horaindik in fiun-rik erantzun sakon-sakonik izan ez duelako, inoiz euskeragaitik egin danik galdera sakonena izanarren. Sa'batore Mitxelena berak ere, Unamuno ta abendats'en, nere us-tez zuan behar zuan bezala azertu aspaldiko auzi hau. Neri aski izan zitaidan berak erderazagako har-tu zituan arraziarik eunak euske-arentzako hartzea. Nere sentipe-nen eta nere arimaren izakera eus-keran arkitu nuelako.

Ta, hala ere, pentsa zezakean bezala, hotek ez ziran nere errazoi bakarrik. Gizonatasun justizia egarria ere bere ariman daroa. Gu-ruzitan hil duzu adibide. Ta, mun-dukio gizon bakoitzari errespetoa ta justutasuna zor zian bezala, era berean, herri bakoitzari ere zor

zaio Euskeran hezi ta azi gñanok zergaitik ez besteak baiña esku- bide?

Esango didazu gure herri ahunek ez duala hori sentitzen. Gejenak ez. Egi da. Baiña, lo daudelako. Ta, ni, zigorkatu ninduen batean iratzartu nintzen.

Horaindik ez dakit ziurtasunez mundu honetan zertako nagoan, baiña bai badakit justizia hurri da- goela, eta borondaterik hoberean- rekin niyoa mundu hobego baten bila. Euskalduna naiz eta nahi dut nere herriak euskaldun irau- dezan. Ta, ez da asko eskatzen du- dans: gizon guzientzat eskubide berdina, ta herri guzientzat ere ho- ri bedhori.

Bai, Jose, Espriu'ren hitzekin esango dizut:

Diversos son les homes i diversos les parles.

i han convingut molts noms a un so lamor.

Ta, haibeste hizkuntza alperri- kakaok badiraz, mundu zabalarri begira, ta batez ere etorkizunari be- gira, zertako dugu gaztelera? Zer- gaitik ez goaz zuzenik inlesa ikas- tera? "The english speaking folk", izen hunekin Unamunok berak ere badu lan jakinpari bat, euskera menderatu nahirik eta euskera baz- tertu nahirik dabilentzantz hain atsegia ez dana.

Ta, bukatzeko ere, betor Unamu- noren irakaspenetikakoa: "Adu- farnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales" (Obras completas. T. VI, p. 957).

Baiña, guzi hauen gaitetik, gau- za bat utzi behar dut argi ta garbi ZERUKO ARGIA'ren irakurleent- zatz, badakidala zure galdera sa- kon hori-zez zijoala euskeraren kon- tra, lo-zorrozan daudenak esmatzeko balzik. Baita ere, nere iritzi haue- tan bakarrik ez dagoala hizkuntza baten hil edo biziren errazoi ba- karra. Zuk ere, behar bada, nahi- goko zenuen beste alde batetik be- giratu banion zure g'aderari. Bai- ña, horaingoz, alde huntatik be- giratu nahi izan dut, eta beste noiz- bait izango dugu gaiari bestalde- tik begiratzeko aukera.

Izan ongi.

ERRESPUESTA BAT

Nehor ez banaiz, ta sekulan ez badut ere, nere lehendabizikoa J. Azurmendi'k planteatu duan kuestioa erantzutea pentsatu dut. Haspaldianik neu ere problema berdinarekin bai nengoan: zergaitik eta zertako EUSKELDUN.

Hasieratik aitortu behar dut ez dudala absolutorik onartzen. Euskal Herria, berdin euskal izaera edo hizkuntza ta horrenbeste zenbait ez dire absolutuak niretzat.

Txina'n jaio izan bagian gaur egun kultural erreboluzioan sartuak gñake seguru; Viet Nam gure herria izan ta ahuskalo amerikanoak ez ote ginduzten akatu napal azpian.

Baiñan ez bata ta ez bestea: gu euskaldun jaio ginduzen. «Me naci- ron sin permiso» ta euskaldun gera. Ez oieak, okerragoak ere ez horre- gaitik.

Puntu huntaxen galdetu dezaket: Zergaitik euskaldun ez izan, zerta rako ez izan?

Xoil-xoilik erantzun gabe utziko genduan galdera hau. Eta nehorak ka pablea bada erantzuteko, erantzun beza.

Ez dut praktikoa biltzen ebidentziak erakusten diguna snobismo- gaitik kustioan jarzea. Errealitate uste dugu baino ximplegoa baia. Existenzial krixisa igaro ondorean ez du balio aundirik galderak «zertako... izan». Horrefako galderak egieta geure burua masturbatzea da. Ebiden- tzitari ta «dasein»-eri begiak itxia.

Beti gogoratzen naiz Codorniz'eko txiste hartaz: gizon bat serio serio, buru luzea, a lo Chumi Chumez, «pienso, luego existo» —zion—. «Bueno, y qué», bukatzen zuen bere elukubrazioa.

Krisis existenziala superatu duenak ez du eskubiderik horrelako gal- derak egiteko. «Euskaldun zertarako izan» galdetzen duanari, «gizona zer- tako izan» galdetuko nion.

Gizona izaitea merezi badu, zertako galdetu euskaldun-gizona izaitea merezi ote duan edo ez. Ez diot sentidurik biltzen, benetan. Ala gizonak gera, ala ez. Baldin eta bagera, onartu gaitzen geran bezala. Aspabiorik gabe, razismorik gabe.

Eta mesedez utzi ditugun masturbazio guzikiak alde batera (sordide- ces intelectuales para vagos que quieren convencerse de que no deben serlo) ta hasi gaitzen ekintzan.

Lehen pena ematen zidan, horain berriz nazka, gizon batzuek, herri bat, hil-zorian dakustenean eta «kirie eleisonek» eta «requiescat in pace» entzuten duan bitartean filosofoi ta existenzial angustiaz kezkatzen ar- tenean. Ni gizona nahi dut izan, ta euskaldun jaio neuteuz nere gizon- dasunaren akzidenteari (basquetas), eta akzidentea besterik ez, aurrera bultzatuko diot. Arrazoi aundirik gabe, itsu-itsu. Gaurko mundukoak ho- rrela geralkako.

MIKEL A. YNTXAUSTI

ESKUTITZAK

EUSKAL IDAZLE BATI

Dana gezurra izango dala uste det. Marmartzale batek esan dit, euskal ortografi berri at ateraco dezula zure urregio liburuan. Dirudienez, "t" ta "ch" izkiekin asiko zera idazten, antziñako "tzein antzera. Urregioan "atcera", "guciac", "mat- tzen", "etctizayon" ta orrela egingo dituzu beraz. (Dana gezurra, noski). Au erderaz esan oi da: "éramos pocos y parió 'ue'la". Orainarte "h" izkia genuen problema. Iskanbilla rri bat sortu nai diguzu? Gure idaz-produzioa apala baiño apalagoa izaten da; kuntzaren egoera, anarkikoa; idazleak, bakoitza bere detik, amaika euskalkiz idazten; irakurleak, eskriba- ren dan apurra, ezin ulerturik... ta beste korapillo rri bat sartu nai dezu euskal literaturan? Ezte ezer onprentzen! (Gezurra, dana gezurra, jakina). Oroitzen naiz, izan ere, lengo egun batean Ricardo rregi adixkideak esandakoaz. "Guretzako bizitza da- i, "hobby"-tzat" artzen dute beste batzuek. Neretzako, zuretzako bezala, euskera eta "hobby"

bat, arimaren barnetikako dei bat, ots izugarri bat, baizik. (Egia esan, dei ori nundik datorren eztaik, baiñan inundik etorriko da, noski). Nik, gauza bera esaten nion, gutxi dala, poesiari bu-ruz, Ibon Sarasola olerkariari: poesia eta denbora pe- sartzeko jostallu polita responsabilidade ardioko eginbear bat, besterik ez. Baiñan nik "snobistatza" ez al zaitut artzen. Zure idazlanak, oleri ta jostaldi saillean batez ere, asko ederreitsi ditut euskal baratzari, aize berriak dakazkete- lako. Beraz, pentsatzen aritu naiz: gizon ori "c" ta "ch" izkikiak erabiltzen asi dan ezkerre (bear bada guztia ge- zurra), bere arraziak izango ditu berak ortarako. Gure euskaltzaleak batasunaren bideari jarraitu nai eztiotekako, desbatasunaren bideari jarrai dezatioten, ala- jaiak! Agur, adixkidea. Uste det dana gezurra izango dala.

CARLOS SANTAMARIA